

Bertso uholdea Aiaraldeko eskoletan!

Aiaraldea osoko 700 ikasle baino gehiago aritu dira bertsozaritza lantzen aurtengo kurtsuan gure herrietako ikastetxeetan. Bertsozale elkarteko irakasle den Unai Mendibil ibili da gelaz gela klaseak ematen.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak eta DBHko 1 eta 2. mailako ikasleak izan dira 'Gu ere bertsoan' programan parte hartu dutenak. Amurrio, Urduña, Aiara, Artziniega eta Laudioko udalak izan dira proiektu honen bultzatzaile nagusiak, Arabako bertsozale elkartearekin eta ikastetxeekin elkarlanean.

Haurrek primeran pasa dute bertsoak egin eta entzunez, euskaraz jolastuz.



AMURRIO

- Lukas Rey Ikastetxea
- Zabaleko ikastetxea
- Aresketa ikastola
- Zaraobe Institutua
- Virgen Niña ikastetxea

LAUDIO:

- Lateorro ikastetxea
- Lamuza ikastetxea
- La Milagrosa ikastetxea
- Laudio ikastola
- Fabian Legorburu ikastetxea

AIARA:


- Etxaurren ikastola

ARTZINIEGA

Arteko Gure Ama ikastetxea

URDUÑA

- Josefinos de Murialdo
- Urduña Herri eskola



Ikastetxeetako ekintzak



Lehen aipatu bezala, Aiaraldeako eskola guztietan landu da bertsolaritza. Kurtsoan zehar gelaz gela ibili da bertsozale elkarteko irakaslea. Eskola orduetan burutu dira klase hauek eta umeak bertso mundura hurbiltzeko oso baliagarriak izan dira. Oinarritzko ezagutza bultzatzeko lehendabiziko oinarria izan da batzuentzat eta aurretik ezagututakoa sendotzeko balio izan du besteentzat. Kurtsoan zehar, umeek eskoletan bertso asko sortu dituzte eta horietako bertso asko eta asko jendeaurrean abestua izan dira. Kasu batzuetan ikastetxeetan egindako jaialdietan (gabonak, ihauteriak, kurtso bukaerako jaialdiak,...) kantatzeko bertso sortak izan dira eta beste kasu batzuetan herri ezberdinetan egin diren jaialdietan (korrika, euskararen eguna,...) kantatzeko prestatuak izan dira.

tzeko prestatuak izan dira.

Kurtsaori bukaera emateko bertso jaialdi bereziak egin dira Laudioiko eta Amurrioko udalak bultzatuta. Ekainaren 6an elkartu ziren amurrioko ikasleak bertan dagoen antzokian eta Ekainaren 7an berriz, Laudiokoak, lanbide heziketako aretoan.

Bertso barnetegia Espejion

Espejoko aterpetxe eta ingurune ederraz gozatzeko aukera izan dute Aiaraldeko umeek aurtengoan ere. Arabako bertsozale elkarteak, Aiaraldeako udaletxeekin eta koadrillarekin elkarlanean, bertso abentura antolatu du.

6. urtea izan da aurtengoa bertso barnetegi hau antolatzen dena. Urtez urte indarra eta sendotasuna hartu du aste santu garaian gauzatzen den aiaraldeko bertso barnetegiak.

Martxoaren 22tik 24ra, Amurrio, Urduña, Aiara, Artziniega eta Laudioko 73 ume elkartu ziren Espejoko aterpetxean. Bertsolaritza mundua ezagutarazi, euskara suspertu eta bultzatzea eta eskualdeko herri ezberdinetako umeen arteko harremanak sustatzea dira bertso barnetegi honen helburuak.

Bertan, primeran pasatzeko aukera asko izan zituzten umeek, bertsoa, kantak, jolasak, gaubekak, Giro paregabea pasatu zituzten 3 egun hauek.

Herri ezberdinetako umeak elkar ezagutzeko eta euskara hutsean egun batzuk pasatzeko aukera ezin hobea!!



Eskolarteko Txapelketa 2016

Maiatzaren 21ean, Aramaion ospatu zen Arabako bertso eskolen eguna eta 14-18 urte bitartekoen XIX. Bertsolarien Eskolarteko finala. Goizean aretoan, ondoren poteoa, bazkaria eta bertso-jolasak arratsaldean.

Arabako bertso eskoletako haur, gazte eta gaztetxoak elkartu ziren Aramaion, batzuk lau oinetan aritu ziren, beste batzuk bertso sorta jarriak kantatuz eta nagusienek bat bateko saio petoa osatuz.

Aramaioko eta Legutioko ikasleen bertso sorta jarriak entzuteko parada izan genuen lehenik. Eta ostean,

sei gazte oholtzan norgehiagokan Maria Izagak jarritako lanei fin, ausart eta arin erantzunez. Aroa Arrizubieta, Markel Yoller, Martin Abarrategi, Peru Amorrortu, Unai Anda eta Xabier Antia izan dira zortziko handian, zortziko txikian, puntu erantzunetan eta gaiari kantatuz aritu diren bertsolariak.

Azkenean, Aroa Arrizubietak jaso du Arabako mikro erreleboa, iaz garaile suertatu zen Peru Abarrategik berak pasa dio erreleboa. Egurrezko mikro honek urtero erreleboan etxez etxe, familiaz familia, auzoz auzo, herriz herri eta Arabako kuadrillaz kuadrilla ibiltzeko helburua du, beraz... 2017ko udaberria bitartean Gasteizen izango da Aroaren sendian.



Aroa Arrizubieta eta Peru Amorrortu Bertxilika Bertso Eskolako kideak izango dira aurtengoan Euskal Herriko Eskolarteko finalean Arabako ordezkari. Ereñozun ospatuko da egun hau, ereñoztarra zen Txirrita bertsolari handia hil zela laurogei urte betetzen baitira.

Baina eguna ez zen hemen amaitu eta Aramaioko bailara honetara gonbidatutako eguzki izpi gozoen azpian herriko kaleetatik trikipoteoan ibili ziren gazteak. Ostean, oilasko paella eta gazta tarta ederra jan zuten San Martin eskolako jantokian.

Eta egunari amaiera emateko, herri olinpiadak, lokotxetan, eskiak oinetan

eta sokatiran aritu ziren bertaratuak baina kantatzeari utzi gabe, puntuak eta oinak jarri.

Egun borobila, bertsoz, barrez eta eguraldi ederraz lagundua Aramaion.

KUADRILLA ARTEKOa



Haize berriarekin heldu zitzaigun Koadrilartekoa aurten. Lehia azken egunetik kanpo utzi eta aurreko saioak erronka modura izan baitziren. Baina hasieratik has gaitezen.... 2016ko Arabako Koadrilartekoan hamalau taldek (Gorbeialdetik bost, Aiaraldeatik bat, Lautadatik bi, Mendialdetik bat, Arabar Errioxatik bat eta Gasteiztik lau) parte hartu zuten eta sei erronketan (erronka bakoitza koadrila batean izan zelarik) burutu zen lehen fasea. Gorbeialdekoa Izarran ospatu zuten, bertan Gorbeialdeko taldeak aritu zirelarik jolasean, Aiaraldekoa kopletan burutu zen, Lautad-

dan nahiago izan zuten bertso-bolotan aritu, Mendialdean herri kirolen txanda heldu zen, Gasteizen gudan egon ziren eta Errioxan bertsoa eta musika uztartu zituzten. Erronka hauetan idatzizko talde batzuk ere ibili ziren (tartean Añana eta Trebiñoko ordezkariak). Azken eguneko festa handia Argantzunen ospatu zen. Bertan erronka guztiak (herri kirol, musika, jolas...) egin zituzten taldeek, hori bai, erronkarik gabe eta giro ezin hobean. "Erronka" poteoa, bazkaria, saio musikatua, bertso-guda, elektrotzaranga....



BERTSOZALEON TXOSNA

Gasteizko jaietan berriz aurkituko gaituzu txosnagunean. Hurbildu gure txosnara, eskatu bertso bat zerbitzen dagoenari eta hartu trago bat gurekin... edo... lanerako gogoz bazaude hartu txandatxo bat eta ikusi mundua barraren bestaldetik.



Denetik egin behar delako jaietan....

**AIEBE Aiara eskualdeko bertso-
eskola**

Arduraduna: Unai Mendibil
e-posta: trunkatun@hotmail.com
Arabako Bertsozale Elkarte
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia
Zentroa
945 010505/ ara-
ba@bertsozale.com

www.bertsozale.eus
/araba